



EBAZPENA, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan programazio didaktikoa entregatzeko epea zehazten duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez (2025eko martxoaren 6ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak iragarri ziren.

Agindu horren 6 oinarrian aurreikusitakoa betez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.– Programazio didaktikoa entregatzeko epea (sartzeko prozedura – txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda).

2025eko maiatzaren 15etik 26ra, biak barne, entregatuko da, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren 6. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, eta honen bidez:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» - «Norberari egokitutako kontsultak».

2.– Ebazpen hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzea, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren 6. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN

